

## Alkatearen proposamena

Izaro Elorza Arregui andrea, Oñatiko Udaleko alkate-presidentea, legediak ematen dizkidan eskumenak baliatuz.

**Gaia: Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana onartzea.**

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legearen II. Tituluko I. kapituluaren ezartzen da berdintasunaren aldeko politika publikoak nola planifikatu.

15.1. artikulua hau dio: “Legegintzaldi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zu-zen, euskal herri-aginteei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira. Plan hori egiteko orduan, euskal herri-administrazio enparaei parte hartzeko aukera eman behar die Eusko Jaurlaritzak”.

Bestalde, Legeak hau dio 15.3 artikuluan: Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomia eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute. Udalek banaka zein kide diren edo ondore horietarako osa ditzaketen mankomunitateen bi-dez egin ditzakete jarduketak horiek. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza teknikoa eta dagokion foru-aldundiaren laguntza ekonomikoa izango dituzte, ba-tez ere ahalmen ekonomikoa eta kudeaketa-ahalmen txikia dutenek

Gainera, 15.4 artikuluan hau ezartzen da: “Aipatutako planak eta programak onetsi aurretik, horiei buruzko txostena eman behar du Emakunde-Emakumearen Euskal Era-kundeak, zehazteko, hain zuzen, plan eta programon edukiak bat datozen legegintzaldi bakoitzaren hasieran Eusko Jaurlaritzak, 1. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, onetsi behar dituen jarraibideekin eta gidalerroekin.

Oihane Ruiz de Apodaka Bermudezen (Berdintasun teknikaria) 2021eko uztailaren 13an egindako Berdintasun Batzordearen sinatutako aktak dio:

*“5. Oñatiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Plana onartzea.*

*Oñatiko udalak 2012 urtean onartu zuen I. berdintasun plana, eta 2016ko luzapena tarteko, 2020 urtean agortu zen plan horren indarraldia. Hala, Oñatiko udaleko berdintasun politiken egungo egoeraren azterketatik, norabidea berrezarri eta datozen urteetarako erronkak finkatu asmoz, I. plana ebaluatu eta II. Planaren elaborazio prozesuari ekin zion.*

*Bide horretan Elhuyarren laguntza izan dugu, eta udaleko langileen, politikarien eta herriko eragile ezberdinen parte hartzea ezinbestekoa izan da, Oñatira egokitutako berdintasun plan eraginkor bat eratze aldera. Horregatik, maiatzaren 18an planaren kontraste-saio politikoa egin zen berdintasun-batzordearekin eta udal departamendu guztien teknikari edo arduradunekin bi saio berezietan, eta ekainaren 2an Oñatiko Emakumeen Kontseiluarekin egin zen kontraste-saioa.*

*Han jasotako ekarpenekin planaren dokumentua osatu egin da eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeren 15.4 artikuluan eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren ezarritakoarekin, hain zuzen ere, prozedurari, plangintza-programazioari, finantziarioari, sustapen- eta koordinazio-egiturei eta planek izan beharreko edukiei buruz, bat etorri Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak txostena egin zuen eta horren ofizioa jaso zuen (173 irteera zenbakiduna- 2021eko uztailaren 6an).*

*Txosten horretan agertzen ziren iradozizunak kontuan hartuta, Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren behin-betiko dokumentua osatu da.*

*Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren behin-betiko dokumentua ahobatez onartu da.*



*Beraz, hilabete honetako Osoko Bilkurako deialdian gai bezala eramango da bere onarpenerako”.*

**4/2005 LEGEA**, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, bere **15. Artikuluak**, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planei buruzkoa, honako hau dio:

“1.- *Legegintzaldi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteez emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira. Plan hori egiteko orduan, euskal herri-administrazio enparauei parte hartzeko aukera eman behar die Eusko Jaurlaritzak.*

2.- *Aurreko paragrafoan aipatutako plan orokorraren jarraibideak eta gidalerroak garatzeari dagokionez, Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere planak edo jarduketa-programak egingo ditu.*

3.- *Foru-aldundiek eta udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute. Udalek banaka zein kide diren edo ondore horietarako osa ditzaketen mankomunitateen bidez egin ditzakete jarduketa horiek. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza tekniko eta dagokion forualdundiaren laguntza ekonomiko izango dituzte, batez ere ahalmen ekonomiko eta kudeaketa-ahalmen txikia dutenek.*

4.- *Aurreko bi paragrafoetan aipatutako planak eta programak onetsi aurretik, horiei buruzko txostena eman behar du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, zehazteko, hain zuzen, plan eta programon edukiak bat datozen legegintzaldi bakoitzaren hasieran Eusko Jaurlaritzak, 1. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, onetsi behar dituen jarraibideekin eta gidalerroekin.”*

Azaldutakoagatik, Berdintasun batzordeak osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

**LEHENENGOA.-** Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana onartzea eta horretarako adostasuna ematea, 2021eko ekaineko dokumentuaren arabera.

**BIGARRENA.-** Plana Oñatiko Udalaren web gunean argitaratzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki honen berri ematea.

**HIRUGARRENA.-** Berdintasun-plan honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epea igarotakoan izango ditu ondorioak.

**LAUGARRENA.-** Berdintasun teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, plan hau behar bezala bete eta garatzeko.

**BOSTGARRENA.-** Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Osoko Bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekursorik aurkeztu harik eta berraztertze koaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekursu aurkez daiteke.

Oñatin, 2021eko uztailaren 16an

Akatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui Andrea.